

### Perkusbiska



#### **Perkusbiska, perkusio bikotea**

**Vicent Zaragoza** eta **Elur Arrieta** perkusio jotzaileek osatzen dute bikotea. “Perkusiozko mundu bat / Un mundo de percusión” ikuskizuna aurkeztera datoz, perkusiozko musika tresnen mundu zabal hori gehiago ezagutarazteko asmoz.

Ahotsa eta perkusioa soilik erabiltzen zeneko errepertoriotik hasi eta XX. mendean perkusiorako idatzitako musikara egingo dute bidaia. Herri musikan erabili izan diren instrumentu eta tresna berezietan gain, gaur egungo, perkusio tresna estandarrak, hainbat eratako danbor, marinba etabar entzun eta ikusteko aukera izango dugu.

2004-08 urteetan, Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegian (Musikene) elkarrekin burutu zituzten perkusio ikasketekin batera hasi eta adiskidetasun hartatik sortu da perkusio bikotea

Gaur egun, **Vicent Zaragoza** Bilbao Orkestra Sinfonikoko (BOS) perkusio bakarlaria da eta **Elur Arrieta** freelance musikaria eta musikarientzako mindfulness-ean aditu eta instruktorea. Era berean, aipatutako lan horiek estatu mailako hainbat orkestra eta talderekin egiten dituzten kolaborazioekin uztartzen dituzte, esaterako: Euskadiko Orkestra (EO), Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoa (OSCyL), Nafarroako Orkestra Sinfonikoa (NOS), Bilboko Udal Musika Banda, Bartzelonako Udal Musika Banda, PAAX GNP jaialdi internazionala eta abar.

Beraien espezialitatea perkusio klasikoa izan arren, beste hainbat musika estilo ere jorratzen dituzte: musika tradizionala, musika garaikidea, musika modernoa, jazz, musika latino, eta abar. Musika talde ezberdinetako partaide izan dira azken hamazortzi urteetan.

# EGITARAUA

---

|   |                        |
|---|------------------------|
| <b>Conversation for two tambourines</b> | Bobby Lopez            |
| <b>Catching Shadows</b>                 | Ivan Treviño           |
| <b>Losa</b>                             | Emmanuel Sejourne      |
| <b>Trio per uno</b>                     | Nebojša Jovan Živković |
| <b>Fission</b>                          | Alice Gomez            |